

Arkitektura pertsonentzat da, zuretzat eta niretzat, guztiontzat. Gure nahiekin eta premiekin batera, gure neurriak eta proportzioak dira arkitektura eta hiria diseinatzeko abiapuntu garrantzitsuenak. Hortaz, giro atseginez eta funtzionalez hitz egin ahal izateko, giza eskalari buruz aritu behar dugu lehenengo.

Erraz aurkituko dituzu giza neurriek zure eguneroko bizitzan eragiten duten moduari buruzko hainbat adibide. Ikastetxeko korridorean, berokien esekitokiak zure eskua iristen diren lekuan daude. Eskailerak angelu egokian igotzen dira, zure oinak mailetan jartzeko. Ateen heldulekuak zure eskura egokitzen dira. Aurkitzen al duzu beste adibiderik? Zenbaitetan, espazioak -barnekoa edo kanpokoak, logelakoa edo kalekoa, hirikoa edo paisaiakoa- estuegiak edo zabalegiak iruditzen zaizkigu. Espazio jakin bat arrazoi ulertezin batengatik perfektua dela iruditzen zaigunean, hots, espazioaren dimentsioak eta xehetasunen neurriak bat etortzean, giza eskala nabaritzen dugu.

Baina, zer gertatuko litzateke askoz ere txikiagoa izango bazina eta mundua ezkutatutako katu baten begietatik ikusiko bazenu? Azter ezazu, jolas ezazu neurriekin eta proportzioekin eta txikiagotu zaitez 1:10 eskalara arte. Erraza da. Ni 1,75 cm altu naizen pertsona heldu bat naiz; 1:10 eskalan, berriz, 17,5 cm neurtzen dut. Zenbat neurtzen duzu zuk? Neur zaitez eta txikiagotu zaitez. Prest egotean, egin ezazu zeure buruaren irudi bat 1:10 eskalan. Zer motatako espazioak eta lekuak topatzen dituzu orain? Azter ezazu eta argazkia atera iezaezu egoera horiei.

Arkitektoek beren proiektuak eskalazko maketekin eraikitzen dituzte lehenengo. Gustatuko al litzaizuke arkitekto bat izatea eta jolastokian ezkutuko etxola bat diseinatzea, edo, bestela, leku zoragarri batean etorkizuneko ametsezko etxe bat diseinatzea? 1:10 eskalan diseinatuz gero, eskalazko irudiak neurri zuzenean egiten lagunduko dizu. Utzi zure irudimenari hegari egiten!

